



KULTU-ARETOEN LEGEAREN AURREPROIEKTUA AZALTZEKO TXOSTENA.

1. AURREKARIAK DESKRIBATZEA ETA ARAUGINTZA-EKIMENAREN JUSTIFIKAZIOA

Espainiako 1978ko Konstituzioak 16. artikuluan aitortzen du erlijio-askatasuna, eta Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez garatu da askatasun hori. Europar ere babesaren eman diote erlijio-askatasunaren oinarritzko eskubideari Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulua eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluek.

1.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.

Euskal gizartean erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da gaur egun, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa eta itzulezina izango da.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ez die nahikoa arau-tresna ematen erakunde publikoei gai eta eskaera asko eta asko kudeatu ditzaten, kultu-areto eta guneen gaia, besteak beste.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko EAeko 2/2006 Legeak ez du arau zehatzik ezartzen kultu-lekuak antolatzeke eta irekitzeko. Aurreikuspen lotesle bat baino ez du hirigintza-diseinuaren ardura duen administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea ezinbestean, "ekipamendu kolektibo pribatuetarako, hala nola merkataritza-zentro, erlijio-zentro ..." (54.2e art.). Halaber, tokiko sistemen zuzkidura-sarearen ezinbesteko elementuen artean sartzen ditu "erlijio-erabilerarako ekipamendu pribatuak" (57.2.e art.).

1.1.2. Estatuko ordenamendu juridikoetako araudia, horrelakorik badago.

Lurzoruari buruzko Estatuko 8/2007 Legeak ez du arautzen kultu-lekuak antolatzea eta irekitzea.

Araudirik ez dagoenez, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoari kultu-gune eta kultu-aretoei buruzko berariazko araudia ematea, gune horiek izan nahi dituzten erlijio-elkarteek erlijio-askatasunerako duten eskubidea babestu ahal izateko, eta ezinbestekoa da, halaber, administrazio publikoei kudeaketarako irizpide egoki eta sendoak ematea, gune eta areto horiei lotutako eskaerak hirigintzako plangintza orokorraren esparruan administratzeko.

2. XEDAPEN OROKORRAREN PROIEKTUAREN IZAPIDETZEA

Aurreko legegintzaldian, Europako Hegoaldeko Ikasketa Sozial eta Juridikoetarako Zentroko aditu talde bati agindu zitzaion txosten orokor bat egin zezala Euskal Autonomia Erkidegoak kultu-aretoak arautzeko dituen eskumen-aukerez. Txostenaren metodologiaren ardatzak izan dira, batetik, konstituzioaren, estatutuaren eta legeen erreferentzia-esparrua aztertzea, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat legegintza-parametro egoki bat ezartzeko interesgarriak izan daitezkeen zenbait kasu ikertzea –nazionalak (autonomikoak) zein nazioartekoak, esaterako–.

Txosten hori egin ondoren, Kultu-aretoen Legearen aurreproiektua idatzi da.

Kultu-aretoen Legearen aurreproietua aldez aurretik onartuta, egin beharreko izapideak bideratuko dira –hala nola, negoziatzekoa, audientziakoa, jendaurrean jartzekoa, partaidetzakoa eta kontsultakoa–, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Lege honek indarrean jartzeak berekin dakarrenez Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duten administrazioek aurreikus dezatela hirigintza-antolamenduko bitartekoetan beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak ezartzea eta kultu-erabilerarako edo beste erlijio-helburu batzuetarako gunak irekitzeko eta erabiltzeko ezinbestekoak diren baldintza tekniko eta materialak zehaztea, gerta daiteke udaletan gastuak sortzea legea ezartzerakoan.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailarenean.

Izpta.: Jonan Fernández Erdocia
Bakegintza eta Bizikidetzarako
idazkari nagusia